

Arrazoi historikoek bultzatuta, eta hauteskunde-koalizio honetan ordezkaturik dauden nazioek kanpora begira defendatu duten proiektuagatik eta nazioarteko harremanen eremu guztietan duten presentziaren ondorioz betidanik adierazi duten borondateak gidaturik, CEUS osatzen dugun alderdi politikook espainiar Estatuak Europar Batasunean sartu aurretik eta ondoren hitzeman izan dugu gure proposamenen, aldarrikapenei eta defendatzen ditugun planteamenduei jarraipena emateko konpromisoa.

Europa Solidarioaren aldeko Koalizio honetako kideok beharrezko jotzen dugu 'Batasuna Berpiztea', eta bere alde eskaini nahi dugu nortasun kultural, sozial eta ekonomiko handiko gizarteak ordezkatzeko dakarren aktiboa. Gizarte hauen biziraupena ekarri du, neurri handi batean, toki, estatu eta Europa mailako erakundeen arteko harremanak, Estatuaren arteko lankidetzan eman ohi diren mugak hautsiz. Nortasun eta arazo espezifikoak dituzten gizarteak ordezkatzeko ditugu, hala nola uhartetasuna, eskualde ultraperiferikoa edo Estaturik gabeko Nazioak izatea, zeinaren hizkuntza, kultura eta nortasuna bizirik dirauten bi Estatu kideetako mugaz gaindiko lurretan bizi arren.

Gure koalizioaren asmoa da Batasunaren gobernagarritasun berriari buruzko eztabaidan laguntzea, benetako berrikuntza politikoko prozesu batetik abiatuta, subsidiariorotasun-printzipioak, hurbiltasunak, herritarrekiko etengabeko solaskidetzak eta lurralde askotariko eta erreferenteetako hobekuntza-aukeren, indarguneen eta ahulguneen ezagutza sakonak ematen dituzten errealitatearen bidez. Hurbiltasuna, irekitasuna, gardentasuna eta parte-hartzeko abagunea eman nahi dizkiegu XXI. mendeko gizarte ireki eta modernoekin koherenteak diren erabaki-prozesuei. Eta egin nahi dugu Estatuaren egitura tradizionalak baino eraginkorragoak eta praktikoa-agoak diren egitura instituzionalak, kultura politikoak eta elkarlanerako ohiturak eskainiz. Horiek eredu izan behar dute Europa are integratuago eta federalago baterako bidean.

Gure lanaren abiapuntua da ikuspegi nazio anitza, kultur anitza eta eleanitza, eta elkarriketan eta aniztasunarekiko errespetuan oinarrituko den kultura politiko berria aldarrikatzen dugu, Batasunak sorreratik dituen baloreak indartuz.

Konpromisoa hitzeman dugu Europa demokratiko batekin, sozialki aurreratua eta pertsonak bere lan politikoaren ardatz izango dituen.

Europa kohesionatuagoa, garatzeko bidea ezagutza eta berrikuntzaren ildotik egingo duena. Bere autonomia estrategikoa landuko duen Batasuna, etorkizuneko lehiakortasuna finkatuko duena bere produkzio sistemaren deskarbonizaziotik eta digitalizaziotik abiatuta, eta hazteko eredu berri bat sustatuko duena ekonomia zirkularraren printzipioetan oinarrituta. Balio etikoak, produkzio-oreka eta gizarte-eredu aurreratua oinarri hartuta, ekonomia global berriaren lidergoa finkatuko duen Batasuna. Munduko garapen ekonomikoan garrantzitsuak diren erakundeetako lankidetzaren eta koordinazioaren aldeko apustua eginez. Azken batean, Europa oparora, aberastasuna sortuko duena, solidarioa, integratzailea, osasungarria eta sorreratik

duen goiburuarekin koherentea: "Aniztasunean Batuta". Europaren Etorkizunerako Konferentziatik atera ziren ondorioetan oinarrituta, bere egituraketa instituzionala eraberrituko duena, "aniztasun" kontzeptuari Estaturik gabeko Nazio eta Erregioak gehituz, beren dimentsio osoan hartuta, erakunde mailan, kultura alorrean zein esparru sozial eta ekonomikoan. Europaren zeregina da eragile global eta eraginkor bihurtzea, mundu bidezkoago bat sortu ahal izateko, mundu askeagoa eta berdintzaileagoa, ekologikoki iraunkorragoa, segurua, bakean biziko dena, giza baloreak eta funtsezko eskubideak errespetatuz. Europa erresilientea, populismoen kontra tribatua, prest eta prestatua gure prozesu politikoetan kanpotik datozen injerentzien kontra egiteko.

Oinari horiek abiapuntutzat hartuta, ondorengo ezaugarriak izango dituen EUROPAR BATASUNA aldarrikatzen dugu, eta haren aldeko konpromisoa hartzen dugu:

GURE ONGIZATEAZ ARDURATUKO DENA. Gure ekonomiaren produktibitatea eta lehiakortasuna funtsezko gako dira ongizaterako, kalitatezko enplegurako eta gure eredu soziala finkatzeko. Batasunaren iraunkortasuna justizia sozialarekin hasten da. Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak artatzeko orduan, Europako estandarra sustatzen dugu, krisi globalek sortutako larrialdiei erantzuna emateko mekanismoekin batera. Etxebizitza eskuratzea eragozten duen eta txirotasun energetikoa eta haustura soziala dakartzan espekulazioa borrokatzen dugu. Talentuaren alde egiten dugu eta berdintasuna sustatzen dugu gure lehiakortasunerako giltzarri gisa. Erregio eta hiriak integratzen ditugu migrazio politikak erabakitzeko prozesuetan.

EUROPAR BATASUN ERALDATZAILEA. Batasunaren burujabetza estrategikoa aldarrikatzen dugu, herritarrak babesteko eginkizuna helburu izango duena, bai eta kanpo-koarekiko mendekotasunak ezabatzea, Europa berrindustrializatzea eta gure elikagaien segurtasuna bermatzea ere. Isurketetan neutroa izango den produkzio sistemarako trantsizioari helduko diogu, neutraltasun teknologikoan oinarrituta eta tartean izango diren sektoreei lagunduz eta haiei entzunez. Mugikortasun eredu berria lantzen ari gara, adimenduna eta integratua, kontsumo jasangarria helburu izanik.

PERTSONEN ETA DEMOKRAZIAREN ALDE. Bere aniztasun osoan batuta, Estaturik gabeko Nazioetako eta Konstituziodun Erregioetako hizkuntzak, erakundeak eta kulturak barne hartuko dituen. Hiritarrekiko etengabeko solaskidetza babesten dugu, Europaren Etorkizunerako Konferentziatik atera ziren ondorioekin lerrotatuta. Proposamen hauek Batasunaren barne funtzionamendurako itunak aldatzea defendatuko dugu, bai eta demokraziarekin, bakearekin eta eskubideekin erantzungo duen zabaltze-politika ere. Demokrazia onbideratuko dugu populismoa eta autoritarismoa borrokatuz.

GERO ETA SENDOAGOA, ANITZAGOA ETA BATUAGOA. Eragile globala den aldetik bakegilea eta giza eskubideekiko errespetuaren sustatzailea. Erakunde multilateraletan nazioarteko harremanak sustatu eta bideratuko dituen Batasuna, balore eta arau lotesle eta unibertsaletan oinarrituta. Segurtasun eta babes bermea mundu mailan ematen diren gatazka eta ziurgabetasunen aurrean. Irmoa Nazioarteko Zuzenbidea urratzen den egoera bakoitzean, Errusiak Ukrainan eta Israelek Gazan egin bezala. Disuasio-gaitasunarekin, ohiko erasoen eta mundu mailan gure kontra lehia-tzen direnek babesten dituzten injerentzia eta zibererasoetan oinarrituta burutzen dituzten eraso hibridoaren aurrean.

Gaur egun bizi dugu II. Mundu Gerraz geroztik sortu den ezegonkortasun globalik handienetakoa. Askotariko erronka, desafio eta ziurgabetasunen aurrean gaude, eta aurre egin behar diegu guztiei. Inoiz baino gehiago, bere proiektu politikoan nabarmen aurrera egingo duen Europa behar dugu. Europaren integrazio prozesuan jauzi kualitatiboak emango dituen. Eta XXI. mendeko benetako eragile politiko global bilakatuko dena.